



## AITOR-EN ETORRERA EDO EUSKAL-ERRIAREN ASIERA.

---

### IRAKORGAYA.

---

SEÑALADA CON **MENCION HONORÍFICA** ES LOS JUEGOS FLORALES  
EUSKAROS DE ESTA CIUDAD.

---

Jakiña da Euskaldunen artean gure anziñako guraso Aitor-ek diabetatu zuela Euskal-erria. Itz guchian bada ere, esan dezagun nola ta zéren bidez izandu zan gure Aita-lenenaren etorrera.

Aitor-en aurreko edo gurasoak bizi ziran Ararat-eko mendietan. Oetan erpintzen da Gordeya-ko aitzia, zeñean geratu zan Noéren kucha, Ujola jachitzen asi zanean. Mendi aietatik, beren biotzeko deardarei oartu edo eranzunaz, irten ziran gure asabak sart-aldeko lurrak berriró jendez betetzera, eta gelditu ziran Kaukaso-pean, alchaturik emen beren dendak, eguerdi aldeko ibaibero edo *ibero-en* urrean. Bertan, urte askoan bizi izan ziran zorioneko ta doatsu; baña geroago, ikusirik Aitor gogoangarriak beren ausoko Zeltarrak zutela aien garau eder ugari eta aberetalde aundien gutizia; eta orrengatik egiten zituztela licharrerri ta charkeri asko, esan zien bese seme ta echetarrei:

—Seme maiteak; ez dago emen guda ta deserakidak besterik. Aberatstasun danak baño gozoagoa da pakea. Billa dezagun bada, utzirik ortarako lur ugaritsu eta loretokiak. Gizonaren paradisua ez dago lurrean.

Jaso zituzten beren dendak, laga zituzten naigabez ibai beroak, eta barrengo ichasoaren basterretik ibilliaz, irichi ziran Akitaniara.

—¿Nora dijoaz,—esan zuen Aitor maitagarriak—nora dijoaz ne-guaren asieran landa oetatik igarotzen diran usuak? Usua da pakearen ezagungarria. Goazen ikustera non gelditzen diran egazti oriyek; berak etzaten diran tokian, etzango gera; berak lo egiten duten lekuan, egongo da zoriontasunaren kabia.

Ala, jarraitu zioten beren bideari, ipar-aldetik zetozen choriak gidari zituztela. Illargi betea zan gau batean, alcha zituen Aitor-ek zerurontz bere begiak, eta arritu zan ikusirik Auñemendi-ko<sup>1</sup> ton-  
tor goititu zillar antzekoak.

—¡Aurrerá, mutillak!—esan zuen—gerenganatu ditzagun mendi oek, eta ez gaitean irten beñere beren artean dauden ibarretatik. Gizonak bizi bear du bere obiaren ondoan, eta Auñemendian dago Aitor-en ezurrak estaliko dituen orubea.

Seme guziak, aitari obedituaz, berezitu zituzten mendi aen sart-aldeko lurrak, zazpi puska egiñaz, eta seme bakoitza puzka bategaz jabeturik. Ala bizi ziran beren aitaren ondoan egartzichoak amaren egopean bizitzen diran bezala. Mendarteetan lo egiten zuten usuak.

Baña Aitalenenaren aideak, zeñak ziran ondoko lurrez jabetu, esaten zuten:

—Usuak lo egiten dute zulo auetan, ta joaten dira. Gu ere egon gera, eta jarraitzen degu aen bidea. Ikusten ditugu Eguara, laba aundi erribera ugaritsuak diruditenak. Oneraño irichitzen da bere-tako usai eder garbia. Goazen ibai oyetako ura edatera, goazen baso usaitzu oetako garauak jatera; goazen eguerdi aldeko lur ugaritsuak menpetutzera,

—Laga zayozute joaten—esan zuen Aitor-ek—eta ez jardun gaizki esaka nik egin dedan esleitzagatik. ¿Nai dezute izan aberats, iñoren mendean egoteko? Jarraitu berei; zabaldu zaitezte landa loretsu oetan. ¿Nai dezute izan lokabe, naiz mundu guztia zuekgaz aztu? Geldi zaitezte mendian.

Seme bat bakarrak ere, ez zuten utzi añ aita maitatia, zeñak goien-deetan eman ziozkan eskerrak Jaungoikoari.

\*  
\*  
\*

Zeru garbia, dana gorriturik dago. ¿Zéñek egin du orrelako gar-tza Auñemendiko egietan? Beren errayetako menast' urtuak, errekek egiñik, pizkor jachitzen dira, negu-ondorean elur-urtua jachi oi dan bezala. ¿Illda, ausa, Aitor-en jatorria? ¿Jaunak zemaitu du bere aurrekoen dendak utzi dituelako? Ez; bazik Aitor jakintiak esan du:

—Lar ontan, beñere ez du gizonak ipiñi bere eskua; eta chara luze auek, daude guztiz illunak; erre ditzagun erriberetako basoak, eta ¡or non ditugun lurrak nekazaritzarako, ta zelayak abereak bazkatu ditezen!

Ala bukatu zan Aitor-en ibillera. Denden lekuan alcha zituzten chaolak; lenago soll zeuden lurrak, asi ziran ematen eskur ta gara-uak; abere-taldeak ere bai ugaritutzen. Azkenik, eriotzako orduan,

(1) Auñemendi=El Pirineo.

gizon doatsu ura zegoen etzinda bere lastozko oyaren gañean, zazpi semeak inguruan zituela. Agure arren arpegia, bere bizar luzea beziñ zuri zan; baña begirasuna, guziz irmea. Gizon zuzenak ez dio eriotzari beldurrik.

—Seme biotzekoak—zion—urak estali dute lurra, baña ez dituzte ondatu gaiztakeriak; ugarteak urpetu dira, baña gezurrak igeri egin du uraren gañean. Ikus zazute mundua, berriró tallu ustelak adora-tzen. Ordea, nere semeak en dira belauntuko beren eskuetako egi-tadearen aurrean. Sinistu zazute Jaungoiko bakar bategan, ta obe-ditu beti gurasoei. Aita da lege emantzallea; eta echetik kanpora, zarrenak izango dira guraso. Ekarrí ditutan aberatstasunak lur-pean daude; bakarrik laga nai dizutet nere izen onraduna, ta ar-kaitz arte auek, beretan lan egiñaz, zorionekoak izan zaitezten. Etzaitzete besteen lurrak irabaztera joan, eta ez izan iñork mende-tuko zaituzten beldurrik.

Au esanik, ill zan gizon itzal aundiko ura, geratzen zala bere erria, zazpi lurbira edo pusketan berezitua.

ECHEGARAY-KO KARMELO-K.

VILINCH BIURSARIAREN DOAINDIGOAN.

AMALAUDUNA SEÑALADO CON **MENCION HONORÍFICA** EN LOS JUEGOS FLORALES DE ESTA CIUDAD.

¡Donostiárrak! ¡Donostiárrak!  
 ¿Gaur zerk zaituzte zuek gozáten?  
 ¿Gudari pórtitz piñeen jazárrak  
 Al dituzúte gógoz ospátzen?  
 ¿Ichas-umánten ázaiñ azkarrak  
 Al zabilzáte pózez kantátzen?  
 ¿Nóla bestéla zúen ibárrak  
 Módu orrétan díra zorátzen?<sup>1</sup>  
 —Járrí nai degu Vilinch ernaiya  
 Erramu lórez koroituríkan;  
 Beraren izen maitagarriya  
 Urre-letrákiñ ezarriríkan;  
 Arritu dédin Euskal-erriya  
 Aren doaiyak ikusiríkan.

Echegaray-ko Karmelo-k.

(2) Zoratu=Rebozar de placer.